

Primer premio del Concurso de artículos sobre «La Montaña y el Medio Ambiente» en euskera.

Mendizalearen pozak eta penak

JEXUX AIZPURUA BARANDIARAN

«Ez da biderik ez den lekurik bada biderik egiten bada egin beharko berria egin ezak heurea hura duk bidea eta geurea»

Harrat Urbelain

ENE ikasle gazte batek, mendiari buruz zerbait adieraz diezaiodan eskatu dit. Zergatik joaten den jendea mendira, zergatik neguko hotzak direnean, zergatik udaberriko izotzondoan, zergatik udako egunsentietan, zergatik udazkeneko hegohaize epeletan, zergatik izerdi eta nekeak, zergatik desorduko jekierak, zertarako hori dena, zer du mendiak eta mendizalea zein den?

Hainbeste itaun entzunik, lan haundiegia neure buruari ematea ere; dena dela, baietz esan diot, baina baldintza batekin: asteko saio bakoitzeko, joan-etorri bat egin beharko duela, entzundakoa ikusi eta aztertzearren.

Hori zela eta, ostiralero bildu ohi gara eleketara, eskolako lanak amaitu ondoren. Hona bilkura horien berri, ahal den zehatz-mehatzen emanik.

Lehenengo saioan hauxe esan nion:

—Nik ez dizkiat galdera guzti horiek erantzungo, esango diat ordea, ni zeren

bila joaten naizen, eta zerekin topo egiten dudan, esango diat baita ere, eguraldiak edo aroak nahiz ez lagundu, mendiak beti duela berezko xarma, eta bideak herratzean, goian zerua eta beheran lurra besterik ez denean, norberaren irudimen-indarrez muga ezinezko murgilketan igeria egiten jakin behar dela, eta ez dakienak ikastea beste biderik ez duela izango, baldin eta naturak menderatzea nahi ez badu behintzat.

—Hori ordea neretzat gehiegi izango da.

—Ez mutil, zenbat arbolaren izenak dakitzak?

—Pagoa, ..., lizarra, pinua...

—Zerbait badakik, baina laurdenaren laurdenik ez duk ezagutzen, eta ikasten ez duk hain zaila, nahikoa duk zuhaitz bakoitzaren jantziari begiratzea: hostajea, azala eta fruituak. Hik Errealeko elastikuaren margoak eta Osasunakoerenak etabar dakitzaan legez, zuhaitzek ere, badizkiate bereak, hori bai, sugeak larrua aldatzen duen

bezalaxe, zuhaitza ondo ezagutzeko, urtean hiru bat ikustalditxo egin beharko dizkiok.

Hori gutxi balitz, askotan lekuek ere zuhaitz-izenekoak izaten dituk, hara nola Lizarreta, Arteta, etabar. Nahi baduk, datarren asterako, ea biltzen dituan hire herriko hamabost leku-izen, zuhaitzekin zerikusia dutenak.

Baita bildu ere, esanda bezala, hamabost ez ezik hogeitaz ere, Agiñeta zela, Paga-be, Amezti...

—Ondo zegok, portatu haiz. Gaur mendiko bideez berba egingo diat. Joan zen udaberriko goiz batez, Urkidi aldera nindoala, bidea laharra janda aurkitu nian, eta arramaskada bat edo beste eginik, kostatu zitzaidan bidea ebakitzea, hemen jo han jo, armiarmasarearen gisa zegoan guztia katrapilaturik. Gerorago konturatu nituan egoera haren arrazoiaz, errekaldekin zehar mendipista bat egin bait ziaten eta ohizko bidailariak errexera jo, zer egingo



Hirugarren astea berehalaxe heldu da. Asteburua noiz etorriko zain egoten da, eta ez dakit eskolako lanak bazterreratzen ez ote den ari...

—Ze, hi, gauza bat galdetu behar diat, eskolea zer moduz, etxean bat ere saiatzan al haiz?

—Ba, egia esan behar badut, gehiegi ez, mendiari buruzko ikasgaitxo hauek hartzen hasi nintzenez gero, bat ere ez.

—Hori ez duk bidezkoa, ez zegok dena bazterrerara uzterik, eta herrorek atera kontuak, baina nahi ez dudana duk, hire gurasoak nigatik gaizki esaka ihardutea, be-
raiekin egotea izango diat onera.

—Aste honetan, eguraldiaz arituko gaituk. Ez zegok esan beharrik, eguraldiaz jabetzeko ez dagoela mendira joan beharrik, baina honen aldaketak, honen aurpegia eta benetako bihotza ezagutu nahi baduk, bertara jo baharra zegok. Hik pentsa ezak tximistaketan ari dela, jendea nola egoten den herrian, denak etxean, ate eta leihoak hertsirik, erramu-usain galanta sukaldean eta bada ez bada ere, kandelargitan. Egia esan, edozein duk beldur horrelakoetan, baina mendian tximistaren zitzadaren argindarraren ederrak ateratzen duen us-tegabeko argazki hura bezalakorik, ez duk topatuko inongo erakustokitan, mendia-
ren esparruan ez baduk. Gaua, une batez, egun bilakatuko balitz bezala duk, zitz handik zitz hemendik.

Baina ez ezak pentsa dena horrelakoa denik. Erauntsiaren ondorena ere ez duk

galtzeko horietakoa. Trumoi-festa igero-
tzen denean, natura dotorezia guztiz jan-
tzirik azaltzen duk, jai nagusienetarako
prestatuta legez, ostertzetik ostertzera, ko-
lore anizdun uztaietz inguratutik. Aukera
hori aurkitzeko ordea, maiz joan behar
duk, bestela gai zegok.

Bihar mendira joaten haizenean, zeraz jabetu behar duk, aguraldiari buruzko hitz-
zerrenda bat egin behar duk. Badakik zer-
gatik? Ze jendeak pentsatu ohi dik, kaleko
eta herriko jendeak esan nahi diat, ona eta
txarra bakarrik direla. Ea ba, saia hadi, eta
elkarren berri izango diagu, gaurkoan heuk
bakarrik joan beharko duk.

Ez zen noski geldirik egon mutila, men-
dira joan ez ezik, bere amandareari, etxeko-
neko morroiari eta Manu artzaiari galdez-
ka, bukaerarik gabeko hitz-errosario-
zerrenda bat ekarri zuen, hasi zerpele-
tik eta hormaraino, hasi ostartetik eta ufal-
noraino, hasi gandutik eta laiotzeraino.
Hau duk trestea, mutil saiatua benetan!

Hurrengo astean ere, pronto zegoen ene
irakaspideari jaramon egiteko, akuzi haun-
dia zion ene erran eta ele motelari.

—Ari haiz, ari haiz, eta zer gehiago jakin
nahi duk?

—Aurrekoan, maisu, Argarbin izan nin-
tzen, eta handik hurbileko gaintxo batetan,
harri haundi bat zegoen, eta hantxe egon
nintzen hats egiten. Hala nengoelarik, ze-
raz konturatu nintzen, inguruko harrietatik
ezberdina zela, itxuraz eta kolorez, norbai-
tek hara ekarri balu bezala, baina erraldoi-

Mendaur.

diagu ba? Bide hori maitea ixan diat beti-
danik, handik egin bait nian nere aurrene-
ko mendi-irteera, perretxikuak biltze as-
moan eta, perretxikuak ahazturik, aurrera
eta aurrera joatea erabaki nian, basoaren
amaieran zer zegoenaren bila, eta erreka
non jaiotzen zen jakin nahi nian, eta gailu-
rraren atzean zer zen jakinmin. Harez gero,
inork esan beharrik ez diat izan mendira
joateko, eta herrian lagun eta adiskide
asko eta onak badizkiat ere, mendia maite
eta kuttuneretakoa diat.

Nahi baduk, bihar bidea irekitzera joan-
go gaituk, ikusiko duk ze poza hartuko
diaten inguruko zuhaitz eta landareek, a ze
lasatua!

Oporrik gabe aritu zen ikaslea, bidea be-
rea balu bezala, hura zen emana eta lane-
rako grina; elorriaren arantzez suturron-
doan egindako urratuek ez zuten mutila
umildu, ezta hurrik eman ere. Ez da alferrik
galduko bere garaian gazte hau, nion nere
kautan.

Ubedi.



ren baten lana izango zen, hola eta hola ekartzeko, kristauzkoen lana ez zuen ematen behintzat, baina harri hura ez zen hangoa, ez.

—Ondo diok, ondo diok, ez habil oker horretan, baduk behapen berezia higan; jende anitz igarotzen duk zehar horietatik, ez dituk ez denak konturatzen, ezta pentsatu ere. Beida, hik esaten duan harri hori ez duk edozein harri, eta ez zegok gainera edozein tokitan, gaintxo batetan, heuk esan duan bezala, trikuharriak dituk, trikuharriak; gure aurrekoen aurrekoek, horientantxe ehorzten zizkiaten beren hildakoak, beraz leku sagaratuak izango hituen haiantzat, hildakoekiko begirune itzela bait ziaten.

Adi ezak, lehen esan duk Argarbin ere izan hintzela, ba han ere bazegok trikuharri bat, zoragarria izandakoa milaka urtetan, baina azkar-usteko izakiren baten azioz, harria lehertarazita zegok, horixe merezi ziaten gure arbaso maitagarriek!

Badakik beraz hire hurrengo lana: han inguruetan, horrelako gehiago ere badituk, eta haien aske joan behar duk, ea zenbatekin egiten duan topo; nondik-norako zehatzagoa jakin nahi baduk berriz, galde iezaiokek edozein artzairi, horretan jakitunak dituk eta.

Esan eta egin, zazpi-zortzi trikuharriren berri ekarri zuen, izen eta guzti. Ezin gehiago eska mutil gazte bati!

—Ari haiz, ari haiz, ez duk denborarik alferrik galdu, eta hori ez duk gutxi hire adineko batentzat. Ba al duk oraindiko zalan-tzaren bat?

—Bai, trikuharri bila leher eginda, lizar

baten ipurtandoan eserita jarri nintzen. Ez zen txintik ere entzuten, ardi eta behorren zintzarridunba hotsa izan ezik. Errekondoko uraren soinuak eta txepetxaren txiutxiuko ederki dastatu ahal izan nuen. Baina bakardade hartan murgildu ahala, isiltasun hark min ematen zidan, min.

—Zergatik min?

—Bakarrik eta beldurrak nengoelako.

—Bai, hala duk, baina hurrengoan ez duk horrelakorik esango, zenbat eta gehiago ezagutu mendia, orduan eta maiteago, orduan eta lagun gehiago, bideak, zuhaitzak, egunsentia, itzalak, orbela, eguzkia, lainoa, trikuharriak, ilargia, haizea, denak izango dituk lagun eta adiskide.

Orduan uxatuko dituk hiregan diren pena eta zalantzak, akabo hire bakardade-minak, urrun beldurraren orratz zorrotzak, agur...

Lagun leialak izango dituk, ez diate diosalik eskatuko, bai ordea begirunea, ez diate ordainik eskatuko, bai laguntasuna, ez diate ezerdeus eskatuko, bai ordea bihotza emango, ez diate ezer emango, bai ordea bakea, ez diate ezer ekarriko, bai ordea babesa.

Lagun horiek ez ezik, beste batzu aurkitzeko parada ere izango duk, baina hauek ez dituk beti leku jakinetan topatuko: abereak dituk. Konturatuko hintzen, oso urri direla gure mendietan, ba horiek barik naturak ez zaukak zentzurik, dena katea bat duk, AIDEA, LANDAREDIA, ABEREA eta GIZAKIA. Zoritxarrez, maila asko galdu dizkik katea horrek, eta horregatik ikusten dizkiagu azeriak oilategietan, horregatik basurdeak patata jaten, horregatik larrerik jalgiten ez den eremuak.

Hurrengo lana ez duk lana, eta hauxe izango duk; eta azkeneko ikaskaia izango duk gainera. Oraingoan ez duk aparteko eginkizunik eramango; mendi ezagutze-bidean jarri haizenez gero, iritsi zaik mendiaz dastatzeko, maitatzeko, bizitzeko orna edo ordua. Joan hadi eta egin ezak hitzarmena berarekin, eta hori lortzen baduk, ez duk ene irekaspideen beharrik izanen, herorri izango bait haiz heure buruaren maisu, eta bidea aurkitu nahiz bahabil, berehala entzungo duk naturaren ele isila esanez: egin, egin ezak heure bidea, hura duk bidea.

RESUMEN

Las alegrías y penas del montañero

Se abren muchas interrogantes al plantearse la cuestión fundamental ¿por qué va la gente al monte? y se va buscando la respuesta desgranando qué es lo que encontramos en el monte, y aprendiendo así, paso a paso, a sintonizar con la naturaleza. Se empieza por algo tan simple como la identificación de los nombres de los árboles, para irse empapando de la esencia de los caminos, de la fiesta de las tormentas, de las sombras de los dólmenes, del calor de los rebaños... El conocimiento se convierte en amor cuando uno se reconoce formando parte de esa magnífica y frágil cadena que constituyen los elementos de la naturaleza, en la que cada uno debe buscar, es decir hacer, su propio camino.

Fotos del autor.

